

EUROPAR BATASUNEKO LAN ORDUEN ZUZENTARAUARI **EZ**

Abenduaren 17an, Europako Parlamentuak, Europar Batasuneko Lan eta Gizarte Gaien Ministroen Kontseiluak pasa den ekainean onartu zuen lan orduen zuzentzarauaren berazterketa bozkatuko du. Nahiz eta zuzentzarau hau ez duten lurralde guztiek derrigorrez bete behar, langileen giza eskubideen aurka doan beste eraso bat da eta patronalaren tesiaren ondoan kokatzen da. Zuzentzarau hau langileen eskubideen aurkako inoiz egin den erasorik bortitzena kontsidera daiteke Europako historian.

Nahiz eta zuzentzarauaren egiterakoan patronalaren nahiz langileen nahiak kontutan hartu behar ziren, errealitatea beste bat izan da. Zuzentzarauak ez ditu sindikatuen proposamenak aintzakotzat hartu eta europar patronalarenak berriz, guztiak hartu ditu kontutan.

Zuzentzarauaren hiru oinarri nagusienak hauek dira:

Gehienezko asteko lanaldia: 48tatik 60 ordutara handitzen da (sektore batzuetan 65-70etara iritsi daiteke).

Erreferentzia aldia: 4tik 12 hilabetetara pasatzen da, urtean zehar jardunaldia malgutu daitekeelarik.

Opting-Out klausula: Banakako edo taldekako akordioak baimentzen ditu zuzentzarauak ezarritakoa gaintetik handitzeko.

Neurri honen garrantzia begi bistakoa da: ez du bakarrik lanaldia jartzerakoan atzepausorik bat markatzen, 1917an 48 orduetatik gorakotan ezarri zena, baizik eta malgutasunean aurreratzen du. Eta larriagoa dena negoziazio kolektiboa ezerezean usten du, banakako nahiz taldekako akordioak baimenduz hau gainditzeko.

Guzti honengatik Europar Batasuneko zuzentzarauari ezetz esaten diogu eta bere ezarpenaren aurka arituko gara.

